



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2022

### LANBIDE

1. Pertsona ekintzaileentzako laguntzak.....	3
2. Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntza, langabezia-prestazioa kobratzen dutenentzat. Ordainketa bakarra.....	5
3. Errelebo-kontratua.....	7
4. Familia eta lana kontziliatzeko laguntzak.....	9
5. Enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak.....	11
6. Enplegu-zentro berezietako lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak finantzatzeko laguntzak.....	13
7. Enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten langileentzako enplegu egonkorra sortzeko inbertsioetarako laguntzak.....	15
8. Desgaitasuna duten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak.....	16
9. Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak.....	18
10. Laneratzeko enpresei zuzendutako laguntzak.....	20
11. Laguntzak SINTEL enpresako langileei.....	22
12. Lehen Aukera Programa.....	24
13. Tokiko entitateek gazteak kontratatzea, Euskadiko Plusaren esparruan 2021-2027.....	26
14. Proiektu bereziak (laneratzeta + prestakuntza).....	28
15. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak egiteko laguntza ekonomikoen deialdia.....	30
16. HEZIBI programa – Gazteek prestakuntza eta lana txandakatzea.....	32
17. Lehenetsunez langile landunei zuzendutako enplegurako prestakuntza-eskaintza.....	33
18. Kontratazio-konpromisodun prestakuntza.....	35
19. Kualifikazio txikiko gazteen prestakuntza.....	36
20. Emakume langabeak lan maskulinizatuetan prestatzea eta kontratatzea.....	37
21. Enplegu-nitxo berriak.....	38
22. Prestakuntza-ekintzak langile kualifikatuen eskari handiko sektoreetan.....	39
23. Anda- eta hiri-eremuetan emakumeei laguntzeko programa.....	40
24. Langabeen gaitasun digitalak hobetzeko dirulaguntzen deialdia.....	42
25. Lehenetsunez langile langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak Eusko Jaurlaritzaren mendekoak ez diren ikastetxe pribatu eta publikoetan prestatzeko deialdia.....	43
26. Enplegurako prestakuntza-erakundeentzako berrikuntzan egindako inbertsioa finantzatzeko dirulaguntzak.....	45
27. Kualifikazio txikiko gazteen prestakuntza.....	46
28. Reskilling eta upskilling ekintzak garatzeko dirulaguntzen deialdia.....	47
29. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria.....	48
30. Bizitzeko gutxieneko Diru-sarrera.....	50
31. Lanbide-orientazioko ekintzetarako laguntzak.....	51
32. Berronkarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak.....	54



33. Luzaroan langabezian dauden 30 urtetik gorako pertsonak EAE-ko lantokietan kontratatzeko dirulaguntzak. 2022ko deialdia..... 56
34. Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasunen bat duten pertsonen enplegagarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroko jardueretarako laguntzak..... 58
35. «Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailletza eta mikroenpresak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia..... 61



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Pertsona ekintzaileentzako laguntzak**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2022eko ekainaren 21eko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen pertsona ekintzaileentzako laguntzen 2022ko deialdia. (3039 Ebazpena, 2022/06/22ekoa - 128. EHAA, 2022ko uztailearen 4koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/07/2203039e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko ekintzaileei zuzendutako deialdia. Lau ildo hauek ditu:

- a) Ekintzaile izan daitezkeen pertsoneri zuzendutako laguntzak, enpresa-ideiak sortu, aztertu eta egituratzeko lanak egin ditzaten arduraldi osoan, ekintzailetako toki-proiektuen esparruan. (APEI: ENPRESA-IDEIAK GARATZEKO LAGUNTZAK).
- b) Tokiko ekintzailetza-proiektuen esparruan, negozio-ideia zehaztua duten ekintzaileek enpresa-proiektu berriak abian jar ditzaten bultzatzeko laguntzak. (APEA: ENPRESA-PROIEKTU BERRIAK ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK).
- c) Enpresa-jarduera bat hasi duten eta hura sendotzeko laguntza ekonomikoa behar duten pertsonentzako laguntzak (APES: PROIEKTUA EZARTZEKO LAGUNTZAK).
- d) Enpresa-jarduera bati ekin dioten pertsonentzako laguntzak, jarduera hori sendotzeko. (APEC: ENPRESA-JARDUERA BAT SENDOTZEKO LAGUNTZAK).

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiaren izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Sortutako enpresa-kopurua: 770 (APES:176; APEC:594) + APEA: 189 enpresa-proiektu, JEGZ-aren balizko altak, laguntza- eta tutoretza-aldia amaitzean.

Laguntza ekonomikoa eskuratu duen ekintzaile-kopurua: 1.314 (APES: 176; APEC: 594; APEA: 189 emandakoak; APEI: 355 emandakoak). Entitate laguntzaileen kopurua: 27

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi honek arautzen dituen laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 3.705.000 eurokoak dira; horietatik, 2.305.000 euro 2022ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.400.000 euro, 2023ko konpromiso-kredituari.

2022an exekutaturako aurrekontua: 2.160.037,50 €


**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Aurreko ekitaldietan baino datu hobeak ematen dira, baita pandemia baino lehenagokoak ere, eta, beraz, programa baliagarritzat eta eragin sozialekotzat jotzen da; izan ere, enplegua sortzeko alternatiba izaten jarraitzen du, besteren konturako enplegua sortzeko tasen igoera geldoaren aurrean. Gainera, batez ere gazteen kolektiboari zuzenduta dago, bizi dugun osasun-krisiak eta krisi ekonomikoak gehien zigortzen dutenetako bat izaten jarraitzen baitu.

**6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza**

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Enpresa-ideiaren garapenean lagundutako enpresa-ekimenen sustatzaileen kopurua	300	355
Enpresa-proiektua abian jartzean lagundutako enpresa-ekimenen sustatzaileen kopurua	150	189
Ekintzaileei laguntzeko eta tutoretza emateko erakunde laguntzaileen kopurua	30	27
Beren enpresako establezimenduan lagundutako auto-enplegatuen kopurua	180	176
Beren enpresa sendotzeko laguntza jaso duten auto-enplegatuen kopurua	650	594



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntza, langabezia-prestazioa kobratzen dutenentzat. Ordainketa bakarra**

## 2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2022ko martxoaren 22an, zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako laguntzak 2021ean finantzatzeko. Agindu horren bidez, oinarri arautzaileak ezartzen dira langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. (1438 Ebazpena, 2022/03/23koa - 65. EHAA, 2022ko martxoaren 31koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/03/2201438e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzaren xedea da lan elkartuko kooperatiba bateko edo lan-izaerako sozietate bateko langile bazkideek, merkataritza-izaerako entitateak eratzen eta abian jartzen dituzten pertsona langabeek eta beren konturako erregimenean lanean hasten direnek jarduera profesionalak egitea. Dirulaguntza jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak ordainketa bakarreko modalitatean eman izana langabezia-prestazioa, prestazio horrek egun zuen zenbateko osoan.

Horretarako, diruz laguntzen dira goian adierazitako langileek Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotak, baldin eta jasotzeko zuten langabezia-prestazioaren kopuru osoa batera eskuratzeko eskubidea erabili baldin badute, beren jarduera profesionalaren hasieran laguntzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Prestazioa ordainketa bakar gisa jasotzeagatik LANBIDEren aldetik 2022an lehen kuotaren ordainketa jaso dituzten pertsonak: 322 eta egindako ordainketa kopurua: 780

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak 500.000 euro izan dira 2022an.

2022an exekutaturako aurrekontua: 262.331 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Enplegua sustatzeko neurri honen xedea da prestazioen onuradunek enplegu propioa lor dezaten sustatzea eta autoenplegua bultzatzea, langabeziaren aurkako babes-politika pasiboen ordean enplegu-politika aktiboak helduz. Krisien egoerak edo ondorioak dauden bitartean horrelako neurriak bultzatzen jarraitu behar da, langabeak lan-merkatuan sar daitezzen errazteko, eta gaur egun, krisi sanitario eta sozioekonomiko baten ondorioak jasaten ari gara, eta horrek laneko eta ekonomiako ondorioak dakartza.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Autonomoek sortutako enpresak	200	138
Kooperatibetan edo lan-sozietateetan bazkide modura sartu den pertsona-kopurua:	200	184



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Errelebo-kontratua**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko abenduaren 13ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen errelebo-kontratuak sustatzeko 2022ko laguntzen deialdia. (6477 Ebazpena, 2021/12/13koa - 262. EHAA, 2021eko abenduaren 31koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/12/2106477e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

30 urtetik beherako gazteen eta 45 urtetik gorako pertsonen enplegua sustatzen du, Lanbiden izena emanda daudenena eta enpresetan iraupen mugatuko kontratuekin lan egiten ari direnena. Xede hori betetzeko, diruz laguntzen dira enpresek gazteen kolektibo horrekin sinatzen dituzten errelebo-kontratuak, honako baldintza hau jarrita: kontratuak lanaldi osokoak eta iraupen mugagabeak izatea; edo, bestela, iraupen mugatukoak izanez gero, kontratua amaitu ostean edo bukatu aurretik mugagabe bihurtzeko konpromisoa hartzea hasieratik. Era berean, errelebo-kontratua duen pertsonak gutxienez 14.000€ irabazi behar ditu urtean. Kontratu bakoitzeko 8.400 €-ko laguntza emango da.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Kontratatutako pertsona-kopurua: 129

**Aurrekontuaren exekuzioa:**

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.168.882 eurokoak dira guztira; horietatik, 701.329,20 euro 2022ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 467.552,89 euro 2023ko konpromiso-kredituari.

2022an exekutaturako aurrekontua: 679.896 € (%60)

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina:**

Beste urte batez, emaitzak aurreko deialdietakoak baino handiagoak izan dira. Agerikoa da oso baliagarria dela eta gizartean eragina izan dezakeela; izan ere, programa horren helburua da belaunaldien arteko erreleboa erraztea, plantillak gaztetuz, gazteak kontratatzen badira, edo esperientzia eta oraindik ere lan-ibilbide nahikoa duten pertsonak sartuz, 45 urtetik gorakoak kontratatzen badira (bi kolektibo horiek dituzte enplegua lortzeko zailtasun handienak).



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Errelebo-kontratuen kopurua	115	129
Gazteei egin beharreko errelebo-kontratuen kopurua:	56	68
45 urtetik gorakoei egin beharreko errelebo-kontratuen kopurua:	50	58
Gazteei egin beharreko errelebo-kontratuei lotutako kontratu gehigarrien kopurua	3	8
45 urtetik gorakoei egin beharreko errelebo-kontratuei lotutako kontratu gehigarrien kopurua	2	5
Parte hartu duen enpresa-kopurua: :	110	109





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Familia eta lana kontziliatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

Erabakia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2022ko martxoaren 22koa, zeinaren bidez baliabide ekonomikoak esleitzen baitira, 2022ko ekitaldian, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren IV. kapituluan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko. (1440 Ebazpena, 2022/03/23koa - 65.EHAA, 2022ko martxoaren 31koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/03/2201440e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren IV. kapituluan, familia eta lana bateragarri egiteko politikaren esparruan, seme-alabak edo mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileak ordezkatzeko kontrataziorako laguntzak arautzen dira:

- Diruz lagunduko da langabe gisa inskribatutako pertsonak kontratatzea, besteren konturako langileak edo kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak ordezkatzeko, baldin eta eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu badute.
- Era berean, diruz lagunduko da aurretik lanaldi partzialerako kontratatutako langile baten lanaldia luzatzea, eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dagoen pertsona baten lanpostua betetzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Diruz lagundutako kontratazioak: 683

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Laguntza hauek finantzatzera 2022ko deialdian bideratutako baliabide ekonomikoak 2.200.000 €-koak dira.

2022an exekutututako aurrekontua: 1.011.497 €.

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Familia eta lana bateragarri egiteko diruz lagundutako eskaera eta kontratu gutxiago egon diren arren (telelanaren gorakadaren ondorioz, ziurrenik), programaren erabilgarritasuna eta eragina ez da zalantzarik, pandemiaren aurreko ekitaldietan bezala normaltasun-egoeretan hasierako kreditua handitu ere egin behar izan baitzen jasotako eskaerei erantzuteko. Kontratazio horiek bi eragin dituzte



programa honen onuradun diren enpresetan: alde batetik, ordezkaturako langileen familia eta lana bateragarri egitea ahalbidetzen du, eta, bestetik, langile berriak kontratatzea eta enpresa onuradunetan sinergiak mantentzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako kontratu kopurua:	1.550	683



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak**

## 2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2022ko martxoaren 23koa, zeinaren bidez diru- esleitzen baitira 2022. urtean desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak enplegu-zentro berezietan mantentzeko laguntzak finantzatzeko. Laguntza horiek urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan daude aurreikusita (168/2019 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin lotutako programak eta zerbitzuak arautzen dituen). (1442 Ebazpena, 2022/03/23ko 65. EHAA, 2022ko martxoaren 31koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/03/2201442e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Desgaitasuna duten pertsonen laneratzea, integrazio pertsonala eta gizarteratzea sustatzea, eta desgaitasuna duten ahalik eta pertsona gehien lan-erregimen arruntean integratzeko tresna izatea. Halaber, desgaitasuna duten langileen baldintza fisiko, psikiko edo intelektualetara egokitutako lanpostuak eskaintzen dira.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Kontrataturako pertsona-kopurua (batez besteko plantilla urtean): 9.608

Zentro-kopurua: 80

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Laguntza-programa hori finantzatzeko diru-baliabideak 2022 urtean 59.500.000 eurokoak izan ziren eta horietatik 59.411.140 € exekutatu dira.

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

2022an zehar enplegu-zentro berezi berriak eskatzen eta kalifikatzen jarraitu dira, eta horrek lanpostu berriak sortzen ari da. Azken ekitaldian, diruz lagundutako lanpostuen kopuruak gora egin duela egiaztatu da, nahiz eta pandemia izan. Gaur egun, batez beste, 9.608 pertsona daude desgaitasunen bat dutenak lanean eta artatuta, eta horrek eragin sozial handia du, batez ere desgaitasunen bat duten pertsonen familietan eta haien ongizatean, desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratze eta laneratzearen bidez.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
EAE n indarrean dagoen EZB kopurua:	76	80
Desgaitasuna duen langile kopurua:	9.850	9.608



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enplegu-zentro berezietako lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak finantzatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2022ko martxoaren 22ko batzarrean hartutako Erabakia, zeinaren bidez onartu baitzen 2022ko laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu-zentro berezietako lanbide jarduerari laguntzeko unitateak finantzatzeko. Laguntza horiek urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan daude aurreikusita (1443 Ebazpena 2022/03/23koa - 65.EHAA 2022eko martxoaren 31koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/03/2201443e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ematea enplegu-zentro berezietan lanbide-jardueran laguntzeko unitateetako langileak kontratatzeko: profesional askok osatutako lantaldeak dira laguntzeko unitateak, eta beren egitekoa da enplegu-zentro berezietan laguntza ematea, desgaitasuna duten pertsonen eta lanpostu bat eskuratzeko prozesuan oztopo eta eragozpen handiak dituzten pertsonen laneratzeko zailtasunak gainditzeko, baita lanpostu horietan mantentzeko ere. Desgaitasuna duten pertsonak gizartean integrazio osoa izango dutela bermatzen dute enplegu-zentro berezietako egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuek.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Laguntzeko unitate-kopurua: 35

Desgaitasuna duen erabiltzaile-kopurua: 4.709

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi honetako laguntzak 2022an finantzatzeko, 5.000.000 euro bideratu dira.

2022an exekutaturako aurrekontua: 5.500.000 euro.

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Laguntzeko unitateen programak zuzenean bermatzen du enplegu-zentro berezietako teknikarien enplegua mantenduko dela. Desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handiak dituzten pertsonen lanpostuak eskuratzeko eta lanpostu horietan mantentzeko behar duten laguntza eta akonpainamendua emateko prozesuez arduratzen dira zentro horiek. Haien laguntzarik gabe, ezingo litzateke bermatu kolektibo horren laneratzea (eta gizarteratzea).



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Lanbidek diruz lagundutako lanbide-jarduerari laguntzeko unitate-kopurua:	36	35
Lanbidek diruz lagundutako desgaitasun larria izanik laguntzeko unitateak erabiltzen dituen langile-kopurua:	4.700	4.709



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten langileentzako enplegu egonkorra sortzeko inbertsioetarako laguntzak**

## 2.-Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2022ko maiatzaren 12ko batzarrean hartutako Erabakia, zeinaren bidez onartu baitzen 2022ko laguntzen deialdia, enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten langileentzako inbertsio egonkorretarako laguntzeko. Laguntza horiek urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan daude aurreikusita (2253 Ebazpena 2022ko maiatzaren 13koa -100. EHAA 2022ko maiatzaren 25ekoa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/05/2202253e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Desgaitasuna duten langileentzako lanpostu egonkorak sortzen dituzten aktibo ez-korronteetan eta horiei lotutako laguntza teknikoetan inbertsioak egiteko dirulaguntza ematea, gizarte-ekimeneko gisa kalifikatutako eta inskribatutako enplegu-zentro berezietan.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiari izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Enplegu-zentro berezi kopurua: 16

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi honetako laguntzak 2022an finantzatzeko, 1.000.000 euro bideratu dira.

2022an exekutaturako aurrekontua: 999.781,60 euro.

Deialdi honetan 2 espediente ukatu dira aurrekontua agortzeagatik.

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Inbertsioak egiteko dirulaguntzak desgaitasuna duten pertsonen lan-baldintzak hobetzen laguntzen du, haien kontratazio mugagabea sustatzen baitu.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Enplegu-zentro berezi eskatzaile kopurua	20	16



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Desgaitasuna duten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2022ko martxoaren 22koa, zeinaren bidez baliabide ekonomikoak esleitzen baitira, 2022. urtean, desgaitasunak dituzten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak finantzatzeko. Laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasunen bat duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu-zentro berezien Euskal Erregistroa arautzeko urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan aurreikusitakoak (1441 Ebazpena, 2022/03/23ko 67. EHA, 2022ko martxoaren 31koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/03/2201441e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hartutako neurrien helburua da desgaitasuna (sortzetikoa nahiz eratorria) duten pertsonen laneratzea bultzatzea, enpresa arrunteko lanpostuetan. Finean, dirulaguntza ematen zaie enpresei, desgaitasuna duten pertsonak kontrata ditzaten.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Kontrataturako pertsona-kopurua: 136

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Laguntza horiek 2022ean finantzatzeko, 700.000 euro bideratu dira.

2022an exekutatutako aurrekontua: 498.889,90 €.

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean eta kontratu mugagabeen bidez laneratzen laguntzen du programa honek, eta baliagarritasun eta eragin sozial handiak ditu kolektibo horretako pertsonentzat, lan babestuaz bestelako lan-aukerak ematen dizkielako.





## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diruz lagundu beharreko enpresa arruntean desgaitasuna duten langileen kontratu mugagabeen kopurua,	150	136
Lanpostu-egokitzapen eta enpresetako oztopoak kentzeen kopurua	3	0



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2022ko maiatzaren 12ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2022ko laguntzen deialdia. (2175 Ebazpena, 2022/05/13koa - 97. EHAA, 2022ko maiatzaren 20ekoa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/05/2202175e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateei laguntzak ematea, enplegua sortzeko proiektuak abian jar ditzaten. Proiektu horiek eragina izan behar dute beren jardun-eremuko lurraldearen garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan, eta modu orekatuan eskaini behar dituzten enplegu-aukerak Euskadiko eskualde guztietan; betiere, 2030 Euskal Enplegu Estrategiarekin bat etorrita eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa beteta.

Deialdi honen azken xedea da Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Ekintzak aurkeztu dituen udal eta/edo mankomunitate kopurua: 53

Laneratutako pertsona-kopurua: 2.056 hasierako emandako kontratuak (programa bukatu gabe).

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 19.148.936 eurokoak dira; horietatik, 10.148.936 euro 2022eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 9.000.000 euro, 2023ko konpromiso-kredituari.

2022an exekutututako aurrekontua: 9.894.384 €.

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Programa honek, Autonomia Erkidegoaren eta Toki Entitateen arteko Lankidetzaren Esparruaren baitan, aukera ematen die toki-entitateei beren enplegu-planak bideratzeko, Enplegu Legeak ez baitie eskumenik ematen gai-alor horretan. Hortaz, deialdi honen bitartez, EAEk Enplegu Legearen 4. artikuluan xedatutakoa betetzen du, enplegu-politiken tokiko dimentsioari buruz.



Toki-eremua da egokiena ekoizpen-aukera berriak aurkitzeko; beraz, ezinbestekoa da enplegu-politiken diseinuan eta kudeaketa-ereduan toki-izaera hori kontuan hartzea, lurraldeko beharretara egokitu behar baitira. Izan ere, horrela sustatuko dira aukera horiek aprobetxatzen laguntzen duten jarduketak, eremu horretako enplegu-sorrerako eta enpresa-jarduerako ekimenak sustatuz eta laguntza emanez, enpleguaren oinarritzko arauan ezarrita dagoen bezala, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegu Legearen testu bateginean.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ekintzak aurkezten dituzten mankomunitate, koadrila, udalerrri-talde edo udalerrrien kopurua:	52	53
Enplegua sustatzeko ekintzen kopurua:	460	384
Enplegu Sustapenaren kontratazio kopurua:	1.200	1.176
Kontrataziorako laguntzen ekintza-kopurua	16	14
Kontratazio kopurua Kontrataziorako laguntzak	880	880



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laneratzeko enpresei zuzendutako laguntzak**

## 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2022ko maiatzaren 12ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzen deialdia. Laguntza horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan araututa daude. (2229 Ebazpena, 2022/05/13koa - 99. EHAA, 2022ko maiatzaren 24koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/05/2202229e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laneratzeko enpresak bitarteko bat dira, hau da, Eusko Jaurlaritzak, horien bidez, politika publikoak aplikatzen ditu gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko, bai eta behar gehien duten kolektiboak eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak lan-merkatu arruntean laneratzen laguntzeko ere, akonpainamenduaren bidezko laneratze- eta gizarteratze-prozesuen bitartez.

Laneratzeko enpresak **sortzeko** laguntzak ematen zaizkie enpresa horien sustatzaileei. Merkatu-azterlanak egiteko laguntzak dira, enpresa horiek sortzea bideragarria den ala ez jakiteko.

Laneratzeko enpresen **iraunkortasunerako** laguntzak honako hauek dira:

- Aktibo finkoetan egindako inbertsioak
- Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Produksioan laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Laneratzeko bidean laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Merkatu-azterlanak egiteko laguntza teknikoak
- Prestakuntza

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiaren izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Indarrean diren laneratzeko enpresak: 40

Betetako laneratze-postuen kopurua: 748

Laneratzeko zenbat teknikaririk jaso duten dirulaguntza: 168



### Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak 11.220.000 eurokoak dira; horietatik, 2.870.000 euro 2022ko ordainketa-kredituari dagozkio, 3.240.000 euro 2023ko konpromiso-kredituari, 3.240.000 euro 2024ko konpromiso-kredituari eta 1.870.000 euro 2025ko konpromiso-kredituari. Baliabide horiei 3.015.000 euro gehitu zaizkie Lanbideko zuzendari nagusiaren 2022ko azaroaren 24ko Ebazpenaren arabera; horietatik 412.511,99 euro 2022ko ordainketa-kredituari dagozkio, 1.173.377,89 euro 2023ko konpromiso-kredituari, 1.173.377,89 euro 2024ko konpromiso-kredituari eta 255.732,22 euro 2025eko konpromiso-kredituari.

2021-2025-etan exekutaturako aurrekontua: 14.190.812 €.

### Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa honek onura publikoko eta interes sozialeko helburua du, baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzearen eta gizarteratzearen bultzatzeko delako, horiek baitira ahulenak bizi dugun krisi sanitario eta ekonomikoaren aurrean.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Indarrean den laneratzeko enpresa-kopurua:	43	40
Baztertuak izateko arriskuan egonik laneratzeko enpresetan kontratatu diren pertsonak, Lanbideren laguntzarekin:	640	748
Laneratzeko enpresetan kontratatu beharreko teknikari laguntzaileak, Lanbideren laguntzarekin:	160	168



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntzak SINTEL enpresako langileei**

## 2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako Erabakia, zeinaren bidez diru-baliabideak esleitzen baitira 2022an 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak finantzatzeko, betiere laguntza horiek emateko prozedurari jarraituz, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan xedatutakoarekin bat (1439 Ebazpena, 2022/03/23koa - 65. EHAA, 2022ko martxoaren 31koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/03/2201439e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Sintel enpresaren enplegu-erregulazioko espedienteetan sartu ziren langileak berriro laneratzeko laguntzea, eta langile horiei laguntza bereziak eskaintzea. Laguntzak hilero ordaintzen dira, eta langile-ohiek Gizarte Segurantzarekin izenpetu zuten hitzarmen bereziaren kostua ordaintzeko zenbateko gehigarriak izan daitezke.

Erretiroa hartzeko adina bete arte luza daitezke laguntza hauek.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiari izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Langile onuradunen kopurua: 2

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Zenbatekoa 242.440 eurokoa da guztira; horietatik 28.800 euro 2022ko ordainketa-kredituari dagozkie, eta gainerakoa hurrengo ekitaldietako konpromiso-kredituari, 2023tik 2034ra bitartean.

2022an exekutaturako aurrekontua: 12.291 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Lan-merkatuan gaur egun dauden inguruabarrak kontuan hartuta, laguntza hori eskatzeko eskubidea duten pertsonak egoera horretan egoteko aukera (oraindik beste hamahiru pertsona gehiago egongo lirateke eskubide horrekin) jasaten ari garen krisi-egoeren aurreko garaietan baino handiagoa da, eta, beraz, aurrekontu-aurreikuspenak ez dira handitzen, baina mantendu egiten dira, programa honetan beste pertsona batzuk sar daitezkeela iritzita, eta urtean gutxienez 4 gehiago zenbatetsi dira.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Langile onuradunen kopurua:	2	2
Langile onuradun berrien kopurua	4	0



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lehen Aukera Programa**

## 2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko abenduaren 13ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez 2022. urterako laguntzen deialdia onartzen baita gazte langabeak EAEko enpresetan kontratatzeko. Lehen Aukera programa. (6478 Ebazpena, 2021/12/31koa - 262. EHAA, 2021eko abenduaren 31ekoa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/12/2106478e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak (16 eta 30 urte bitartekoak) kontratatzea, praktikaldia egiteko edo kontratu mugagabearekin. Kontratuak EAEko enpresek egingo dituzte, lanbide-esperientziaren bidez gazte horien enplegarritasuna hobetzeko neurri gisa, eta haien laneratzea egonkortzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Lehen lana eskuratu duen pertsona-kopurua: 941

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 4.000.000 eurokoak; horietatik, 2.153.846 euro 2022eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.846.154 euro, 2023ko konpromiso-kredituari. Baliabide horiei 3.997.221 euro gehitu zaizkie Lanbideko zuzendari nagusiaren 2022ko azaroaren 24ko Ebazpenaren arabera; horietatik 2.152.350 euro 2022ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.844.871 euro 2023ko konpromiso-kredituari.

Deialdi hau finantzatzeko bideratutako baliabide ekonomikoak honela banatu dira:

- a) 7.689.635 euro lan-kontratu mugagabeak eta praktikaldiko kontratuak finantzatzeko. Aurrekontu horretatik 3.998.610 euro 2022eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 3.691.025 euro, 2023ko konpromiso-kredituari.
- b) 307.586 euro entitate laguntzaileek lan-eskaintzak jaso, erregistratu eta kudeatzeko, bai eta trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko ere, 2022eko ordainketa-kredituaren kontura.





2022an exekutaturako aurrekontua:

- a) 3.969.119,19 € (52% emandako zenbatekotik) eta
- b) 130.320 € (100% emandako zenbatekotik)

### **Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Programa honen helburua da gazteen kolektiboaren langabezia murriztea, 2008az geroztik bizi ari garen krisi ezberdinen kateatzearen eraginaren ondorioz gehien eragiten dien biztanle-taldea den aldetik. Hain zuzen ere, gazteen langabezia murriztea da gure gizartearen erronka nagusietako bat, eta erronka horri aurre egin behar diote bai erakunde publikoek bai enpresa pribatuek. Arazo honen konponbidean arrakasta lortuko da, hein handi batean, parte hartzen duten antolakunde eta sektore guztien laguntzari zein koordinazioari esker, baita ekimen pribatuak egokiak diren neurriak diseinatzean, hartzean eta martxan jartzean duen partaidetzari esker ere.

Baina esperientziarik eza da, egungo egoera sozioekonomikoa alde batera utzita, gazteek lan-merkatuan sartzea gehien zailtzen duen arrazoia. Hori dela eta, deialdi honen xedea da erraztasunak ematea, ikasketak amaitu berri dituzten gazteei lan-munduan sartzeko lehen aukera emateko, hezkuntza-bizitzatik bizitza profesionalera errazago igaro daitezen. Horretarako, esperientzia biziko dute lanpostuan, eta, horrenbestez, lana aurkitzeko edo mantentzeko aukerak hobetuko dira.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Gazteei egin beharreko praktikaldiko kontratu-kopurua:	550	543
Gazteei egin beharreko kontratu mugagabeen kopurua:	150	398
Diruz lagundutako parte hartu duen enpresa-kopurua:	600	646
Erakunde laguntzaileen kopurua	30	31



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Tokiko entitateek gazteak kontratatzea, Euskadiko Plusaren esparruan 2021-2027**

## 2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2022ko ekainaren 10eko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen 2022ko ekitaldiko laguntzen deialdia, toki-entitateek gazteak kontrata ditzaten 2021-2027 eperako EGF Plusaren esparruan. (2829 Ebazpena, 2022/06/10koa - 120. EHAA, 2022ko ekainaren 22koa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/06/2202829e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da gazte langabeak (16 eta 30 urte bitartekoak) kontratatzea beren titulazioarekin lotutako lanpostuetarako, beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia txikia edo batere esperientziarik ez duten heinean eta bai Lanbiden bai Gazte Bermerako Sistemari izena emanda dauden heinean. Kontratuak toki-entitateek egingo dituzte, esperientzia profesionalaren bidez gazte horien enplegarritasuna hobetzeko, eta, hartara, haien laneratzea egonkortzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

- Eskaera-kopurua: 48
- Emandako eskaera-kopurua: 19
- Kontratu-kopurua: 197 emandakoak

**Aurrekontuaren exekuzioa**

Deialdi honetako laguntzak finantzatzeko, 6.500.000 euro bideratu dira, 2022ko ordainketa-kredituaren kontura.

2022an exekutaturako aurrekontua: 6.410.601,00 €.

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina**

Programa honen helburua da gazteen kolektiboaren langabezia murriztea, 2008az geroztik bizi ari garen krisi ezberdinen kateatzearen eraginaren ondorioz gehien eragiten dien biztanle-taldea den aldetik. Hain zuzen ere, gazteen langabezia murriztea da gure gizartearen erronka nagusietako bat, eta erronka horri aurre egin behar diote bai erakunde publikoek bai enpresa pribatuek. Arazo honen konponbidean arrakasta lortuko da, hein handi batean, parte hartzen duten antolakunde eta sektore guztien laguntzari



zein koordinazioari esker, baita ekimen pribatuak egokiak diren neurriak diseinatzean, hartzean eta martxan jartzean duen partaidetzari esker ere.

Baina esperientziarik eza da, egungo egoera sozioekonomikoa alde batera utzita, gazteek lan-merkatuan sartzea gehien zailtzen duen arrazoa. Hori dela eta, deialdi honen xedea da erraztasunak ematea, ikasketak amaitu berri dituzten gazteei lan-munduan sartzeko lehen aukera emateko, hezkuntza-bizitzatik bizitza profesionalera errazago igaro daitezzen. Horretarako, esperientzia biziko dute lanpostuan, eta, horrenbestez, lana aurkitzeko edo mantentzeko aukerak hobetuko dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Parte hartu duen toki-entitateen kopurua:	55	19
Gazteei egin beharreko kontratu-kopurua:	350	197



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Proiektu bereziak (laneratzea + prestakuntza)**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita dirulaguntzen 2022ko deialdia, lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako laneratze eta gizarteratze proiektu berezien garapenerako

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202828e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Langabeak gizarteratzeko eta laneratzeko eta landunen enplegarritasuna hobetzeko jarduketa integralak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin lankidetzan.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Guztira, 107 proiektu onartu dira 1.591 pertsonaren prestakuntzarako, eta horien artean 419 prestakuntza-ekintza (6.183 parte-hartzaile).

**Aurrekontuaren exekuzioa**

5.026.375,89 €.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduketan bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko langile langabeek eta landunek, gizarteratzeko edo laneratzeko zailtasun handienak dituztenek, prestakuntza egokia eta laneratzea aktibatzen ekintzak izan ditzaten ahalbidetzen da, lan-merkatuan sartzea bermatzeko. Nabarmentzekoa da dirulaguntzen lerro hau enplegurako programa integrala dela, eta udalak, toki-erakundeak eta beste erakunde batzuk inplikatzeko bilatzen duela, proiektuari aurrekontu osoaren gutxienez % 10eko ekarpena eginez, ahaleginak koordinatzeko eta helburuak lortzen direla bermatzeko.

Proiektu bereziek prestakuntza-ekintzak, sorrera, enplegua edo parte hartzen duten pertsonen enplegarritasuna nabarmen hobetzen duen beste edozein neurri konbinatzen dituzte.

Proiektu berezien ekintzak laneratzeko edo enpleguari eusteko zailtasunak dituzten kolektiboek zuzenduta daude.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Proiektuetan artatutako pertsonen kopurua	1.400	1.215
Prestakuntza-ekintzetan parte hartu dutenen kopurua	3.500	3.979



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak egiteko laguntza ekonomikoen deialdia.**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2022ko ekitaldirako deialdia.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/08/2203736e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek beren langileen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko programatutako prestakuntza-ekintzak (prestakuntza-ekintza estrategikoak) garatzeko laguntza ekonomikoak.

Enpresatzat hartzen da jarduera ekonomiko bat egiten duen edozein erakunde, haren izaera juridikoa eta finantzaketa-modua edozein direla ere.

Ekintza estrategikoak dira enpresaren proiektuarekin zuzenean lotuta daudenak eta beharren diagnostiko batean edo antzeko dokumentu batean oinarritu daitezkeenak, aurkeztutako ekintzen eta horien xede diren langileen lehentasuna adierazten dutenak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua: 12.438

**Aurrekontuaren exekuzioa**

3.170.851,98 €.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Enpresatzako ekintza estrategikoek dirulaguntzak eskatzen dituzten enpresetan bertan lan egiten duten pertsonen prestakuntzan eragitea lortzen dute; beraz, ematen den prestakuntzak enpresak identifikatutako prestakuntza-helburuak bilatzen ditu. Langileak jasotzen duen prestakuntzak aukera ematen dio bere lana hobeto garatzeko eta enpresak bere eguneratze-prozesuan eta produkzio-bilakaeran landu behar dituen aldaketa teknologikoetara eta prozesuetara egokitzeko.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Parte-hartzaileak	12.000	12.438
Enpresa parte-hartzaileak	200	233



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**HEZIBI programa – Gazteek prestakuntza eta lana txandakatzea**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez esleitzen baitira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan aurreikusitako laguntzak 2022. urtean finantzatzeko baliabide ekonomikoak. Agindu horren bidez ezartzen dira gazteek prestakuntza lanarekin txandakatzeko HEZIBI Programaren oinarri arautzaileak.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202831e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko enpresen artean enpleguarekin txandakatutako prestakuntza sustatzeko dirulaguntza, hau da, prestakuntza duala, LHko zikloetako ikasleekin eta profesionaltasun-ziurtagiri bat egiten duten langabeekin ikas-ekinezko prestakuntzarako kontratu bat formalizatuz.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

**Lortutako emaitzak**

785 ikaslek parte hartu dute ikas-ekinezko prestakuntzan, diruz lagundutako Hezibi proiektuarekin.

**Aurrekontuaren exekuzioa:** 1.329.962,19 €.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Prestakuntza dualak eragin zuzena du LHko titulu bat edo profesionaltasun-ziurtagiri bat egiten duten gazteen enplegarritasunean; izan ere, ikas-ekinezko prestakuntza-kontratu baten bidez kontratatzen dira, eta horrek abantaila guztiak dakartza, bai enpresarentzat, bai langileentzat.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako kontratuen kopurua	1.000	785





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lehentasunez langile landunei zuzendutako enplegurako prestakuntza-eskaintza**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 22ko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunei lehentasunez zuzendutako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen deialdia argitaratzen da, 2022-2024 aldirako

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/07/2203016e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketaren sistemaren eskaintzako prestakuntza-ekimena, zeinaren helburua baita, lehentasunez, langile landunei prestakuntza-ekintzak eskaintzea, egungo lana garatzeko konpetentziak hobetzeko, bai eta langileak banaka birkualifikatzeko ere. Era berean, langabezia dauden langileek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda badaude, eta, gehienez ere, plan osoaren % 30. Ekimen honek biztanleria aktiboaren bizitza osoan enplegarritasuna eta prestakuntza hobetzen laguntzen du, eta, aldi berean, enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzen.

2022an argitaratutako deialdia urte anitzekoa da 2022, 2023 eta 2024 urteetarako.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

**Lortutako emaitzak**

Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua: 33.412.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

14.715.655,55 €.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Lehentasunez landunei zuzendutako eskaintzako prestakuntza langileen prestakuntzan eragin handiena duen lanbide-heziketako sistemaren ekimenetako bat da, eta langabeei ere eragiten die, bertan parte hartzeko aukera ematen baitie. Prestakuntzak pertsonen gaitasunak hobetzen laguntzen du, bai kualifikatzaileak bai zeharkakoak, eta prestakuntza egiaztagarria ere azpimarratzen du, profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzeko. Inpaktu soziala garrantzitsua da, langileen eta langabeen prestakuntza-itzaropenak estaltzen dituelako eta lanpostua garatzeko behar diren gaitasun profesionalak hobetzea lortzen duelako.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Ekintza sektorialetako parte-hartzaileak	25.000	21.989
Zeharkako ekintzetan parte hartzen dutenak	10.000	6.914
Kualifikazio eta aintzatespen profesionaleko ekintzetan parte hartzen dutenak	5.000	4.509



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kontratazio-konpromisodun prestakuntza**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2022rako dirulaguntza-deialdia, kontratazio-konpromisoa dakarten Euskal Autonomia Erkidegoko langile langabeentzako prestakuntza-ekintzak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106480e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kontratatzeko konpromisoa duten prestakuntza-ekintzak, prestakuntza-ekintza amaitzen duten pertsonen % 50entzat gutxienez, enpresa kontratatzaileak edo hainbat enpresaren konpromisoak biltzen dituzten prestakuntza-erakundeek zuzenean eskatuta.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

2022an kontratatzeko konpromisoa duten ekintzetan, 258 pertsona kontratatzeko konpromisoa duten 524 pertsonak parte hartzen dute.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

1.142.002,33 €

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Kontratatzeko konpromisoa duen Lanbide Heziketako programaren helburua da prestakuntza espezializatua eta egokia eskaintzea gure Erkidegoan instalatutako edo ezarriko diren enpresek sortutako lanpostu berriei, kontuan hartuta prestakuntza-ekintzen lehentasunezko helburua langile langabeak produkzio-sistemak eskatzen dituen enplegetan laneratzea edo birlaneratzea dela.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua	900	524
Konprometitutako kontratuen kopurua	450	258



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kualifikazio txikiko gazteen prestakuntza**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko irailaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2022-2024 aldirako dirulaguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabeen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egitea helburu duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204138e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oinarrizko gaitasunak eta gaitasun sozio-pertsonalak (soft skills) eta oinarrizko gaitasun tekniko-profesionalak uztartzen dituzten prestakuntza-ibilbideak sortzen dituzten prestakuntza-proiektuak finantzatzeko laguntzak, gazte hartzaileen garapen pertsonala eta gizarteratzea eta laneratzea errazteko, bai eta 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko ere. Azken helburua da ondoren 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiri bat egin eta gainditu ahal izatea eskaintza-deialdi arrunt batean, eta gaituta egongo liratekeen lanbideetako batean lan egin ahal izatea edo LHko prestakuntza-ibilbide bat jarraitu ahal izatea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

**Lortutako emaitzak**

Kualifikazio txikiko gazteei zuzendutako prestakuntza-ekintzetan 300 pertsona prestatu dira.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

1.493.540,57 €.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Programa honen bidez, erantzun gabeko premia bat asetzen da, hain zuzen ere, adinagatik hasierako lanbide-heziketan sartu ezin diren eta eskola utzi duten gazteena, eta, halaber, gaztelania ikastea, gizarte-eta kultura-trebetasunak izatea eta gure ingurunean laneratzea eta gizarteratzea eskain diezaieketen lanbideetan profesionalki prestatzea behar duten inoren kargura ez dauden gazte adingabeena.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua	195	300



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Emakume langabeak lan maskulinizatueta prestatzea eta kontratatzea**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita maskulinizatutako lanbideetan emakume langabeei prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuetara bideratutako 2022. urterako dirulaguntza-deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106479e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Emakumeak lan-okupazio maskulinizatuena sar daitezzen sustatzeko programa, prestakuntza espezializatuaren eta enpresa kontratatzaileentzako dirulaguntza handiaren bidez. Ezarritako helburuak honako hauek dira: parte-hartzaileen % 70ek prestakuntza-ibilbidea amaitzea lortzea, eta amaitzen duten emakumeen % 70 kontratatzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

**Lortutako emaitzak**

69 emakumeri eman zaie prestakuntza, 34 emakume kontratatze konpromisoarekin.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

208.583,62 €.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Programa horrek azpimarratzen du beharrezkoa dela emakumeak lan-eremu eta -okupazio guztietan parte hartzea, emakumeei soilik zuzendutako prestakuntza-jardueren bidez, tradizionalki egin ez dituzten lanbideak garatzeko aukera emango dieten konpetentzia profesionalak lortzeko.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Parte-hartzaile kopurua	150	69
Konprometitutako kontratuen kopurua	80	34



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enplegu-nitxo berriak**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez argitaratu egiten da enplegu-nitxo berrien eremuan lanbide-kompetentziei buruzko prestakuntza-ekintzak egiteko dirulaguntzen 2022. urterako deialdia, lehentasunez langabezia dauden langileei zuzendua, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/08/2203738e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gaitasun digitalak eta pertsonak zaintzeko, trantsizio energetiko-ekologikorako eta ekonomia sortzailerako gaitasunak eskuratzera eta hobetzera bideratutako prestakuntza-ekintzak, lehentasunez langile langabeei zuzenduak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

**Lortutako emaitzak**

Enplegu-nitxo berrien ekintzetan 6.823 pertsonak parte hartzen dute.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

7.494.500,69 €.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Programa honek azpimarratzen du beharrezkoa dela langileak egungo trantsizio digital, energetiko-klimatiko eta sozio-demografikoetan eskatzen diren profil eta kompetentzia profesional berrietara egokitzea.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Parte-hartzaile kopurua	7.000	6.823



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Prestakuntza-ekintzak langile kualifikatuen eskari handiko sektoreetan**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita langile kualifikatuen eskari handiko sektoreetan prestakuntza-jarduerak egiteko 2022ko dirulaguntzen deialdia, lehentasunez langabeei zuzendua, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/08/2203737e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Langile kualifikatuak behar dituzten sektore/jarduera ekonomiko jakin batzuetako prestakuntza-beharrak betetzera bideratutako prestakuntza-ekintzak: enpresa trantsitarioen eta aduanako enpresa sektore logistikoa, programazio eta garapen informatikoa eta espezializazio handiko sormen-, kultura- eta musika-industria.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

**Lortutako emaitzak**

269 pertsonari zuzendutako 19 proiektu onartu dira; horietatik 9 programazioan, 6 logistikan eta 4 sormen-ekonomian.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

985.265,90 €.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Programa honek jarduera ekonomiko jakin batzuetan detektatutako langile kualifikatuen beharrianak asetzen ditu.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ez da adierazlerik ezarri		



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Anda- eta hiri-eremuetan emakumeei laguntzeko programa**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106483e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Banakako ibilbideetan parte hartzen duten landa- eta hiri-eremuetako emakumeei arreta pertsonalizatua ematea, hainbat motatako ekintzak uztartuz, hala nola lan-orientazioa, aholkularitza, informazioa, prestakuntza, zeharkako gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea, laneratzea erraztea eta enpleguan laguntzea, aldi berean berdintasuna indartuz.

eta diskriminaziorik eza enplegua lortzean. Ibilbideak gaitasun eta enplegu berde eta digitaletara bideratu behar dira, eta, gainera, iraupen luzeko zainketen, ekintzailtzaren eta gizarte-ekonomiaren eremuak hartu behar dituzte barnean, baita honako hauekin lotutakoak ere, besteak beste: energia berriztagarriak, uren eta hondakinen tratamendua, ingurumena errespetatzen duten baso- eta nekazaritza-aprobetxamenduak, ekonomia zirkularra, zerbitzuen digitalizazioa, online merkataritza-jarduerak, teknologia, tokiko landa-garapena eta garapen jasangarria, lurralde-koheretza (ondarearen kudeaketa, turismo-jarduera, tokiko dimentsioko eta dimentsio berdeko ekintzailtza eta gizarte-ekonomia, produktu endogenoak lotuak) eta gizarte-koheretza (mendekotasunaren arreta eta kolektibo kalteberetako esku-hartzea) indartuko dituenak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

55 emakumeri zuzendutako eskaera onartua.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

121.825,00 €. Lehiarik gabeko konkurrentzia, eskabideak aurkezteko epea 2023ko irailaren 29ra arte izanik.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Programak emakumeentzako laguntza-, kualifikazio- eta laneratze-ibilbide indibidualizatuen sorreran eragiten du, eta horietatik % 35, gutxienez, 5.000 biztanletik beherako udalerrri batean biziko dira.





## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Parte-hartzaileak 2022-2023, kostu unitarioaren arabera	469	0



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Langabeen gaitasun digitalak hobetzeko dirulaguntzen deialdia.**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailtza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko helburuarekin langabeen kompetentzia digitalak hobetzeko prestakuntza-programazioa egiteko dirulaguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106484e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Emakume langabeentzako gaitasun digitalei buruzko prestakuntza, ekintzailtza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

**Lortutako emaitzak**

2.850 parte-hartzaile izan dira, eta prestakuntza 2.563 baino gehiago.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

2.580.760,00 €, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak 2021ean transferitutako 5.334.915 euroetatik.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Langabezia dauden emakumeen ezagutza digitaletan eragiten du, bereziki landa-eremuan bizi direnetan, haien enplegarritasuna eta ekintzailtza digitaleko aukerak hobetzeko.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Parte-hartzaileak 2021-2022, kostu unitarioaren arabera	13.472	2.850



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lehentasunez langile langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak Eusko Jaurlaritzaren mendekoak ez diren ikastetxe pribatu eta publikoetan prestatzeko deialdia**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez argitaratu egiten da batez ere langabeentzat den 2022-2024 urteetako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/07/2203017e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketa da enplegu-zerbitzu publikoek beren zerbitzu-zorroan langileei eskaintzen dieten tresna nagusietako bat, eta modu erabakigarrian laguntzen die lan-merkatuan sartzen edo enplegarritasuna hobetzen. Prestakuntza-ekintza horien bidez, ikasleek kompetentzia profesionalak eta pertsonalak eskuratzea, hobetzea edo eguneratzea lortzen dute, eta esperientzia lortzen dute lanpostuan, lanekoa ez den praktika bat eginez, hala badagokio, eta enpresetan jasota uzten dute pertsona prestatu den profil profesionaletan lan egiteko aukerak dituztela.

Testuinguru horretan, erabaki honetan finantzaketa ezartzen zaien prestakuntza-ekintzen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko langabeek, lehentasunez, prestakuntza-eskaintza zabala izan dezakete, enplegarritasuna hobetzen laguntzeko.

2022an argitaratutako deialdia urte anitzekoa da 2022., 2023. eta 2024. urteetarako.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

**Lortutako emaitzak**

2022an 1.065 prestakuntza-ekintza amaitu dira, 15.251 parte-hartzailerekin.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

32.467.794,57 €.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Lehentasunez langabeei zuzendutako enplegurako lanbide-heziketak lagundu egiten du lanik gabeko pertsonak prestatzen EAeko lan-merkatuak eskatzen dituen lanbideetan, 1., 2. eta 3. mailetako profesionaltasun-ziurtagiriak eta espezializazioko prestakuntza-espezialitateak emanez. Era berean,



deialdi honetako prestakuntza-programazioan garrantzi berezia ematen zaio gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak prestatzeari, bai eta profesionaltasun-ziurtagiri bat egin eta gainditu ahal izateko funtsezko konpetentzietan beharrezkoa den prestakuntza emateari ere. Era berean, zeharkako konpetentziei buruzko prestakuntza-eskaintza zabala dago.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Prestakuntza egiaztagarria (2022rako, 23rako eta 24rako programatua)	24.000	18.266
Prestakuntza ez egiaztagarria (2022rako, 23rako eta 24rako programatua)	16.000	17.740



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enplegurako prestakuntza-erakundeentzako berrikuntzan egindako inbertsioa finantzatzeko dirulaguntzak**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko irailaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena.

Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan enplegurako prestakuntza-erakundeentzat berrikuntzaren gaineko inbertsioa finantzatzeko 2022rako dirulaguntzen deialdia argitaratzen da.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204060e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako instalazioetan azpiegitura berritzaileen zuzkiduretako inbertsioa finantzatzea, kalitate-, eguneratze- eta eraginkortasun-bermeekin prestakuntza-ekintzak eman ahal izateko, enpresen errealitate teknologikora eta gaur egun lan egiten duten produkzio-baliabideetara egokituta; horrela, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako prestakuntzak merkatuaren benetako beharrei erantzungo die, enpresen lehiakortasuna eta langileen laneratzea bultzatuz.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

**Lortutako emaitzak**

Enplegurako prestakuntza-erakundeei egindako 94 inbertsio-eskaera onartu dira.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

2.391.829,49 €.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Emandako dirulaguntzei esker, prestakuntza-jarduerak hornidura eta ekipamendu eguneratu eta berritzaileekin eman daitezke.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ez da adierazlerik ezarri		



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kualifikazio txikiko gazteen prestakuntza**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko irailaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2022-2024 aldirako dirulaguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabeen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egitea helburu duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204138e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oinarrizko gaitasunak eta gaitasun sozio-pertsonalak (soft skills) eta oinarrizko gaitasun tekniko-profesionalak uztartzen dituzten prestakuntza-ibilbideak sortzen dituzten prestakuntza-proiektuak finantzatzeko laguntzak, gazte hartzaileen garapen pertsonala eta gizarteratzea eta laneratzea errazteko, bai eta 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko ere. Azken helburua da ondoren 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiri bat egin eta gainditu ahal izatea eskaintza-deialdi arrunt batean, eta gaituta egongo liratekeen lanbideetako batean lan egin ahal izatea edo LHko prestakuntza-ibilbide bat jarraitu ahal izatea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

**Lortutako emaitzak**

Kualifikazio txikiko gazteei zuzendutako prestakuntza-ekintzetan 300 pertsona prestatu dira.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

1.493.540,57 €.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Programa honen bidez, erantzun gabeko premia bat asetzen da, hain zuzen ere, adinagatik hasierako lanbide-heziketan sartu ezin diren eta eskola utzi duten gazteena, eta, halaber, gaztelania ikastea, gizarte-eta kultura-trebetasunak izatea eta gure ingurunean laneratzea eta gizarteratzea eskain diezaieketen lanbideetan profesionalki prestatzea behar duten inoren kargura ez dauden gazte adingabeena.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua	195	300



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Reskilling eta upskilling ekintzak garatzeko dirulaguntzen deialdia**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko apirilaren 6koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan sektore estrategikoetako, pertsonen zaintzako eta despopulazio-arriskuan dauden guneeetako kualifikazio profesionalarekin lotutako biztanleria aktiboaren kualifikazio eta birkualifikazioko prestakuntzarako reskilling eta upskilling ekintzak garatzeko dirulaguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/04/2201646e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Biztanleria aktiboaren kualifikaziorako eta birkualifikaziorako prestakuntza, lanbide-kualifikazioei lotuta, sektore estrategikoetan eta gaitasun eta enplegu berdeetan, pertsonen zaintzan eta despopulatzeko arriskuan dauden eremuetan, bai eta gaitasun profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatze laguntza emateko ere.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

5.519 pertsonari eman zaie prestakuntza.

**Aurrekontuaren exekuzioa**

2.351.345,00 €.

**Erabilgarritasuna eta eragin soziala:**

Ikasleek gainditutako prestakuntza-ekintza ez-formalen bidez, konpetentzia horien erreferentzia diren konpetentzia-atalak egiaztatu ahal izango dira, konpetentzia profesionalak egiaztatze prozeduraren bidez. Horri esker, pertsona askok kualifikazio-maila igoko dute eta prestakuntza-ibilbidearekin jarraituko dute

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ez da adierazlerik ezarri		



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria**

## 2.- Araua

- 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa
- 147/2010 DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.
- 2/2010 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzkoa.
- 2001eko otsailaren 14ko AGINDUA, Oinarrizko Errentaren titularrak eta Gizarte-larrialdietarako Laguntzen onuradunak lanean hasteko pizgarriak ezartzen dituena.
- 4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

- 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa:  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/12/0807235a.pdf>
- 147/2010 ERREGI-DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa:  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/06/1003020a.pdf>
- 2/2010 ERREGI-DEKRETUA, urtarrilaren 12koa:  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/01/1000216a.pdf>
- AGINDUA, 2001eko otsailaren 14koa:  
<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2001/02/0100962a.pdf>
- 4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa:  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2011/12/1105924a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta izeneko prestazio ekonomikoa aldizkakoa eta eskubide subjektibokoa da, bizikidetzaren batean oinarrizko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukatenei zuzendua.

Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari aldizkako prestazio ekonomikoa da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) osagarria. Etxebizitzaren edo ohiko bizilekuaren alokairu-gastuak ordaintzea du xede, modalitatea edozein dela ere: errentamendua, azpierreantamendua, baterako errentamendua, ostatatzea eta logelen alokairua.





5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Espedienteen/DSBEren titularren batezbestekoa: 50.361

Espedienteen/EGPOren titularren batezbestekoa: 23.937

Onuradunen batezbestekoa: 85.416

**Aurrekontuaren exekuzioa**

DBE eta EGPOra bideratutako kreditua 2022an: 432.450.000,00 €

2022an exekutatutako aurrekontua: 392.611.600 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina:**

Euskal gizarteko kolektiborik kalteberenak babesteko programa da, eta bere helburua lortu du, 50.360 pertsona baino gehiago babestu baititu 2022an.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

Adierazlea

Aurreikuspena

Emaitza

Ez da adierazlerik ezarri



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Bizitzeko gutxieneko Diru-sarrera**

## 2.- Araua

19/2021 LEGEA, abenduaren 20koa Bizitzeko gutxieneko Diru-sarrera.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

19/2021 LEGEA, abenduaren 20koa:

<https://www.boe.es/eli/es/l/2021/12/20/19/con>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Bizitzeko gutxieneko Diru-sarrera izeneko prestazio ekonomikoa aldizkakoa eta eskubide subjektibokoa da, bizikidetz-unitate batean oinarrituko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukatenei zuzendua.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak**

Espedienteen/BGDSren titularren batezbestekoa: 18.408

Onuradunen batezbestekoa: 36.934

**Aurrekontuaren exekuzioa**

2022an exekutaturako aurrekontua: 132.127.732 €

**Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina:**

Euskal gizarteko kolektiborik kalteberenak babesteko programa da, eta bere helburua lortu du, 18.400 pertsona baino gehiago babestu baititu 2022an.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

Adierazlea

Aurreikuspena

Emaitza

Ez da adierazlerik ezarri



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

<b>Lanbide-orientazioko ekintzetarako laguntzak</b>
---

## 2.- Araua

- |   |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazio Kontseiluak 2021eko maiatzaren 25eko bilkuran hartutako erabakia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan lanbide-orientazioko ekintzak eta zerbitzuak garatzeko 2021-23 laguntzen deialdia onartzen duena. II. kap. eta III. kap. (Argitaratzeko ebazpena: 2021/05/26 -EHAA, 116. zk., 2021eko ekainaren 15ekoa).</li> <li>• Administrazio Kontseiluak 2021eko ekainaren 15eko bilkuran hartutako erabakia, enplegu-zentroyen jarduera garatzeko 2021-22 laguntzen deialdia onartzen duena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan. III. kap. (Argitaratzeko ebazpena: 2021/06/16 -EHAA, 128. zk., 2021eko ekainaren 30ekoa).</li> </ul> |
|---|

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

- |   |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• <u><a href="#">2021-2023 laguntzen deialdia. II KAPITULUA: Lanbideren erabiltzaileei oro har zuzendutako lanbide-orientazioko ekintzak eta zerbitzuak garatzea - Bilaketa emaitza (euskadi.eus)</a></u></li> <li>• <u><a href="#">2021-2023 diru-laguntzen deialdia. III. KAPITULUA: Desabantaila-egoeran dauden kolektiboetako pertsonentzako enplegurako orientazio-ekintzak egiteko eta orientazio-zerbitzuak emateko laguntzen deialdia. - Eusko Jaurlaritz (euskadi.eus)</a></u></li> <li>• <u><a href="https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021003731">https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021003731</a></u></li> <li>• <u><a href="#">HUTS-ZUZENKETA, ebazpen honena: Ebazpena, 2021eko ekainaren 16koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan enplegu-zentroyen jarduera garatzeko laguntzen 2021-2022ko deialdia argitaratzen baita. - Legegunea: Euskal Herriko araudia - Eusko Jaurlaritz - Euskadi.eus</a></u></li> </ul> |
|---|

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

<p>Enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak garatzeko laguntza ekonomikoak dira, bi ildotan banatuta: herritarrei oro har zuzendutako lanbide-orientazioko ekintzak eta desabantaila-egoeran dauden kolektiboetako pertsonen zuzendutako lanbide-orientazioko ekintzak.</p>
--

<p>Era berean, herritar guztientzako enplegu-zentroyen zerbitzua emateko laguntzak ere sartzen dira. Akordio horien bidez, enplegu-zentroyen, desabantaila-egoeran dauden kolektiboen eta orientazio-ekintza eta -zerbitzuen ezaugarriak zehazten dira. Horiek gauzatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutan kanpoko erakunde espezializatuen lankidetzaren behar da, eta horiek finantzatzeko laguntzen deialdia egiten da.</p>
---



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Biztanleria orokorraren Orientazioa (2021-2023)	11.500	14.343	25.843
Orient. Gizarte-bazterkeriaren egoeran dagoen kolektiboa (2021-2023)	5817	5601	11.418
Orient. Desgaitasuna duten pertsonen kolektiboa. (2021-2023)	2555	1622	4.177
Orient. Ijitoen kolektiboa. (2021-2023)	448	555	1.003
Orient. Presoen kolektiboa (2021-2023)	300	35	335
Enplegu-zentroa. (2021-2022)	8223	7638	15.861
<b>GUZTIRA</b>	<b>28.843</b>	<b>29.794</b>	<b>58.637</b>

#### 2022ko aurrekontua gauzatzea:

- 2021-2023 ORI-COLEC deialditik: 5.691.464 €(2022ko ordainketa-kredituaren % 99,25)
- 2021-2022 CEMP deialditik: 1.082.400,00 (2022ko ordainketa-kredituaren % 95,34). Azken ordainketa hori 2023ko ekitaldian egingo da, jarduera 2022ko abenduan amaitu baitzen eta 2 hilabete baitzeuden azken ordainketatik egiteke zegoen likidazio ekonomikorako.

#### 2022ko jarduera:

2021-23 ORI-COLEC deialdiak:

- ORI Orientazio Orokorra: 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.
- Kolektiboen orientazioa COLEC: 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

2021-22 CEMP deialdia:

- Enplegu-zentroak: 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 12ra.

#### Erabilgarritasuna eta gizarte-eragina

Lanbiden izena emandako pertsonen orientazio profesionaleko prozesuetan esperientzia egiaztatua duten erakundeen bidez arreta emateko mekanismoa, bulegoetan egindako orientazio-prozesuak indartzeko.

Pertsonen beharretara hobeto egokitutako zerbitzua eskaintzeko, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetako pertsonen arreta ematen espezializatutako erakundeak daude. Azken kasu horretan, laguntza hori egon ezean, kolektibo horiek arreta pertsonalizatua jasoko lukete, baina ez espezializatua, eta lan-orientazioan gabeziak sor ditzakete.

Azkenik, orientazio-ekintzak indartzeko, enplegu-zentro izeneko guneak diruz laguntzen dira, enplegua bilatzeko prozesuan dauden pertsonen tresna teknologikoak erabil ditzaten.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u> <u>(2022)</u>
2021eko Plan Estrategikoa		
Orientazioko erakunde laguntzaileetan artatutako pertsonen kopurua: (2021-2023)	45.000	42.776
Enplegu-zentroetan artatu beharreko pertsonen kopurua: (2021-2023)	15.000	15.861
2021-2022 deialdia		
Erakunde laguntzaileetako enplegu-zentroen kopurua: (2021/12/01-2022)	42	41



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak**

#### 2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko abenduaren 21eko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. (6482 Ebazpena, 2021/12/21ekoa - 262. EHA, 2021eko abenduaren 31ekoa).

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/12/2106482a.shtml>

Lehenengo huts-zuzenketa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/03/2201016a.shtml>

Bigarren huts-zuzenketa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/06/2202697a.shtml>

Deialdiaren aldaketa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/07/2203430a.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programako dirulaguntzak ematea, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Dirulaguntzak ematen dira 45 urtetik gorako langabeei eta egoera ahulean edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen arreta pertsonalizatua emateko. Arreta hori hainbat motatako ekintzak batzen dituzten banakako ibilbideak garatuz egiten da, hala nola lan-orientazioa eta aholkularitza, prestakuntza eta konpetentzia profesionalak eskuratzea, laneratzea eta enplegua sortzea lanaldi partzialeko aldi baterako lan-kontratuen bidez. Horietan guztietan, gainera, aldi berean indartzen dira benetako berdintasuna eta enplegua lortzeko diskriminaziorik eza.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak:**

Parte-hartzaileak, unitateko kostuaren arabera: 462

**Aurrekontuaren gauzatzea:**

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 18.879.757 eurokoa da guztira, honela banatuta:

- a) 4.883.358 euro, parte-hartzaile bakoitzaren banakako ibilbideko prestakuntza-, orientazio- eta laguntza-jarduketengatik. Jarduera horiek 2022ko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio eta Europako Batasunak (Next GenerationEU) finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kargura finantzatua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatua (MRR).
- b) 13.996.399 euro, parte-hartzaileen lan-kontratuak finantzatzeko. Horietatik 7.700.000 euro 2022. Ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 6.296.399 euro, berriz, EAEko Aurrekontu Orokorren 2023. ekitaldiko konpromiso-kredituari.

2022an gauzatutako aurrekontua:

- 1.847.538,00 euro. MRR funtsak
- 2.886.778,18 euro. EAEko Aurrekontu Orokorrak

**Erabilgarritasuna eta eragina gizartean:**

Inbertsio-lerro horren bidez berrorka sustatu nahi da, enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzako laneratze-proiektu integratuak garatuz, lurralde osoko biztanle guztientzako hazkunde orekatua eta jasangarria sustatzeko, kolektiboen arteko eta eskualdeen arteko desberdintasunak arinduz.

Helburua da gizarteratzeko eta laneratzeko beharrian handiena duten biztanleei lan-esperientzia izateko aukera ematea, eta esperientzia horri prestakuntza-jarduerak eta banakako laguntza gehituta laneratze egonkorragoa ematea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Parte-hartzaileak 2021-2022, unitateko kostuaren arabera	1.791	214
2023ko parte-hartzaileak, unitateko kostuaren arabera	313	248



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Luzaroan langabezian dauden 30 urtetik gorako pertsonak EAE-ko lantokietan kontratatzeko dirulaguntzak. 2022ko deialdia**

#### 2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2022ko ekainaren 9ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, 30 urtetik gorako luzaroko langabeak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan kontratatzeko 2022ko laguntzen deialdia onartu zuen.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202830e.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko enpresek iraupen luzeko langabezia-egoeran dauden 30 urteko edo gehiagoko pertsonak kontratatzeko laguntzei buruzko programa bat da. Kontratazioak kontratu mugagabeen edo gutxienez 6 hilabeteko iraupena duten aldi baterako kontratuen modalitatearen bidez izan daitezke. Kontratuak lanaldi osokoak edo partzialekoak izango dira (art 3.2 c), gutxienez ezarritako lanaldiaren % 70ekoak.

Diruz laguntzaren zenbatekoa urteko edo hileko ordainsari gordinaren gutxieneko zenbateko batzuk ezartzean oinarritzen da, eta kontratuaren iraupenaren eta kontratatutako pertsonaren titulazio-mailaren arabera finkatzen da. Laguntzak handiagoak izango dira baldintza hauek betetzen direnen: a) Emakumeak edo 45 urte edo gehiagoko pertsonak direnean (+% 15), b) 2021ean edo 2022an Lanbiden kontratatzeko konpromisoa duen prestakuntza-ekintza bat amaitu duten pertsonak, betiere kontratua mugagabea bada eta lanaldia, gutxienez, ezarritako lanaldiaren % 70ekoa bada (+ % 10); c) Kontratatutako pertsonak a) eta b) ataletako baldintzak betetzen baditu, dirulaguntzaren zenbatekoa gehienez % 20 handituko da.

Helburuak honakoak dira,

- EAEan langabezian dauden pertsonak, 360 egun langabezian egotea aurreko 540 egunetan, bertan behera utz dezaten egoera hori eta lan-merkatuan sar daitezen sustatzea.
- Enpresek iraupen luzeko langabezian dauden pertsonak kalitatezko enpleguen bidezko kontratazioa sustatzea.





5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Lortutako emaitzak:**

Enpresa eskatzaileen kopurua: 51 (59 eskaera-espeditente)

Eskatutako kontrataziorako lanpostuen kopurua: 63

Enpresa onuradunen kopurua: 31

Emandako kontratuen kopurua: 33

**Aurrekontuaren betearazpena**

Deialdi honetako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.410.000 eurokoak dira; horietatik 705.000 euro 2022ko aurrekontu arruntari dagozkio, eta 705.000 euro 2023ko konpromiso-aurrekontuari. 2022ko aurrekontu exekutatu arrunta 151.641,20.-€

**Erabilgarritasuna eta gizarte-eragina**

Deialdia onartzeak erantzuna eman nahi dio euskal lan-merkatuaren dauden epe luzeko langabetuei. EAEn, langabezia-tasak behera egin du azken urteetan: 2020ko laugarren hiruhilekoan % 11,4koa izan da, eta 2021eko laugarren hiruhilekoan % 9,9koa, EUSTATen Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren datuen arabera.

Hala ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistratutako 2021eko abenduko langabezia-datuen arabera, langabeen % 50,9 luzaroko langabezia-egoeran daude. Luzaroko langabezia-egoeran dauden pertsonen kopuruak gora egiten du adin-tarteak gora egin ahala; hala, 30 urtetik beherakoak kolektibo horren % 8,8 dira, 30 eta 44 urte bitartekoak % 26,2, eta 45 urtetik gorakoak kolektibo horren % 65. Genero-desberdintasunak esanguratsuak dira: iraupen luzeko langabeen % 60,1 emakumeak dira eta % 39,9 gizonak. Desberdintasun hori adin-tarte guztietan ikusten da, 45 urtetik beherakoen artean 45 urtetik gorakoen artean baino handiagoa baita.

Aurrekoa oinarri hartuta, enpresek iraupen luzeko langabezia-egoeran dauden pertsonak kontratatzea eta pertsona horiek lan-merkatuan integratzea sustatzea garrantzi sozialekotzat eta lehentasunezko interesekotzat jotzen da enplegu-politika gisa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonekin egin beharreko kontratuen kopurua	195	33



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasunen bat duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroko jardueretarako laguntzak**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita enplegu lagunduko jarduketetara bideratutako laguntzen 2022ko deialdia, urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasunen bat duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dira. (2830 Ebazpena, 2022/06/10ekoa – 2022ko ekainaren 22ko EHAA)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202830e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

**Deskribapena:** Laguntzak arautzea eta enplegu lagunduko jarduketetarako pizgarriak ematea, desgaitasuna duten eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean gehiago txertatzeko eta enpresei laguntzeko tresna gisa, bai kontratatu aurretik, bai pertsona lanpostuan sartu ondoren, Enplegu Unitate Lagunduetako profesional espezializatuek garatzen dituzten jarduera integratuak: prospekzio-egileak eta lan-prestatzaileak.

**Helburua:** Enplegu lagunduko unitatei emandako dirulaguntzak lotura du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta dauden eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten desgaitasunen bat duten pertsonen enplegu-aukerak aztertzeko eta laneratzeko konpromisoarekin eta helburuak lortzearekin.

Horrela, honako hauek dituzten pertsonak laneratzera lehenesten da:

- % 33ko edo gehiagoko desgaitasun intelektuala, gaixotasun mentala edo garuneko paralisia.
- % 65eko edo hortik gorako desgaitasun fisikoa edo sentsoriala, edo % 33ko edo gehiagoko minusbaliotasun-maila aitortuta duten pertsona gorak edo entzumen-desgaitasuna dutenak.

Desgaitasuna duten emakumeen laneratzera bultzatzeko, dirulaguntzaren zenbatekoa % 10 handitzea aurreikusten da, kontratatutako pertsona emakumea denean.

Era berean, Enplegu Zentro Bereziatetik datozen eta definitutako desgaitasun motak dituzten langileak lan-merkatu arruntean integratzea eta deialdiaren aurreko ekitaldietan egindako laneratzetan pertsonei eta enpresei jarraipena eta laguntza ematea jasotzen du.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Lagundutako enplegu-taldeen kopurua: 9

Desgaitasuna duten kontratatutako pertsonen kopurua: 81 (eskabideetan onartutakoak: 92)

Desgaitasunak dituzten pertsonen kopurua jarraipen-prozesuetan: 200 (eskaeretan 200 baietsiak)

Enpresen bisita-kopurua: 1.576 (eskaeretan onartuak: 1.884)

Jarduketan justifikazioa aurkezteko epea 2022/03/31n amaitzen da; beraz, lortutako emaitzen datuak aurkeztutako justifikazio-memoretan oinarritzen dira, eta berrikusi egin behar dira.

**Aurrekontuaren betearazpena** Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.200.000 eurokoak dira; horietatik 600.000 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuko 2022ko kreditu arruntari dagozkio, eta 600.000 euro 2023ko konpromiso-kredituari.

**2022rako egikaritutako aurrekontua** 600.000 € (100%)

Dirulaguntzari egotzitako txertaketetan oinarrituta, 2022an aurreikusitako laneratzeen % 88 lortu da (81/92), eta laguntza-eskaeran zenbatetsitako pertsonen % 100en jarraipena egin da enpleguan. Datu horiek adierazten dute nolabaiteko susperraldia egon dela laneratzeko aurreikuspenetan; izan ere, aurreikuspen horiek beheranzko joera izan dute 2020tik, pandemiaren ondorioz desgaitasun larria duten pertsonen laneratzeko dituzten zailtasunei gehitu behar baitzaizkie. Hala, helburuen estaldura % 90era iristen ez bada ere, 2022an sinatutako kontratu berriek adierazten dute suspertu egin direla desgaitasuna duten pertsonentzat 2021ean lortutako kontratuekin alderatuta. Sexuaren arabera, oraindik ere desoreka dago gizonek sinatutako kontratuen eta desgaitasuna duten emakumeen arteko proportzioaren arabera; izan ere, gizonek kontratazio osoaren % 58 osatzen dute emakumeen % 42rekin alderatuta, baina alde hori murriztu egin da 2021eko datuekin alderatuta, azken horretan aldea are nabarmenagoa baitzen. Prospekzio-lanari dagokionez, guztira 1576 enpresa aztertu dira, aurkeztutako justifikazioen arabera. Lan hori bereziki zaila da susperraldi ekonomikoko egoeran eta lan-erreformaren osteko doikuntzetan.

#### **Erabilgarritasuna eta gizarte-eragina**

Enplegu lagundua baliabide eraginkorra da desgaitasuna duten pertsonen lanerako eskubidea sustatzeko eta bermatzeko, eta garrantzi berezia hartzen du desgaitasun larria duten pertsonen kasuan. Enpresa kontratatzaileentzat doako baliabide bat da, desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kuotaren arloan dituzten betebeharrak betetzen laguntzen diena eta desgaitasuna duten pertsonen beren lana ingurune normalizatueta egitea errazten diena.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Enplegu lagundurako lantaldeen kopurua	9	9
Desgaitasuna duten kontratatutako pertsonen kopurua:	65	81
Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko jarraipenen kop.	175	200
Aurreikusitako prospekzio-bisiten kopurua enpresetan	1300	1576



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

«Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailtza eta mikroenpresak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan «Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailtza eta mikroenpresak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106485e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

**Deskribapena:** Programa honen helburua ingurumena gehiago errespetatzen duen edo digitalizatuagoa den ekoizpen baterako trantsizioa errazteko inbertsioak egin dituzten mikroenpresetan jarduerari eta enpleguari eusten laguntzea da. Horrela, tamaina txikiko enpresen jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren jarraitutasuna babesteaz gain (enpresa horiek dira beren jarduera garatzen duten herriguneetan errotuen dagoen enpresa-sarea), produkzio-modu iraunkorragoetara eta modernoagoetara aldatzea sustatzen da.

**Helburua:** «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailtza eta Mikroenpresak» programak laguntza operatiboa ematen dio produkzio-eraldaketan aurrera egiteko helburu estrategikoari, bereziki «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak» izeneko 4. inbertsioan jasotako lurraldean ekonomia berde eta digital orekatu baterantz. Inbertsio hori «Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» izeneko 23. osagaiari sartuta dago, eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren «Zinketen eta enplegu-politiken ekonomia berria» izeneko politika palankarrean sartuta dago.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Aurrekontuaren betearazpena**

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 12.915.292 eurokoak izan ziren 2022an, 2022ko ekitaldiko kreditua 2.391.721 eurotan handitu ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2022ko abuztuaren 31ko ebazpenaren bidez, argitara eman zen handitu egin zirela «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak Ekintzailtza eta mikroenpresak», programa finantzatzeko laguntzen deialdiari esleitutako baliabide ekonomikoak. Euskal Autonomia



Erkidegoan, Europar Batasunak finantzaturako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. (EHAA, 2022ko irailaren 15a, 175. zk.).

Eskaerak egiteko epea 2023ko maiatzaren 31ra arte egon da.

**2022rako egikaritutako aurrekontua:** 10.475.000 (abenduarien 31n 2.118 eskabide ebatzi ziren, baina 2.095 laguntza-eskabidei dagokien ordainketa gauzatu zen).

**Erabilgarritasuna eta gizarte-eragina:**

Kalkuluen arabera, Euskadin 174.088 mikroenpresa dituen unibertso batean 5.000 langile baino gehiago mantentzen lagundu dute emandako laguntzek. Linea digitalean egindako inbertsio gehienak ekipamendu informatikoak erostera bideratu dira. Inbertsio mota hori nagusi da enpresa txikiaren trantsizio digitalean lagun dezaketen beste alternatiba edo irtenbide digital batzuen gainetik. Trantsizio ekologikora bideratutako inbertsioak, batez ere, energiaren ikuspegitik eraginkorragoa den ekipamendua ezartzeko edo eskuratzeko egin dira; oro har, oinarri arautzaileetan eskatzen diren gutxieneko 600 euroko atalasea gainditzen duten inbertsioak behar dira, eta, neurri batean, gauzatze-erritmo motelagoa azal dezake.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Parte-hartzaileak 2021-2022 unitateko kostuaren arabera	2.841	2.118